

Kolektibitatea*colectividad/collectivité*

Barne-batasuna duen talde sozial bat : leku berean bizitzeak, loturik dauden baldintzetan lan egiteak, edo *interes eta helburu berberak izateak, ematen diote kolektibitateari elkartasuna eta partaidego-sentimendu bizi bat; sentimendu honek, azken buruan, batzen ditu kolektibitatearen partaideak.

KOLEKTIBISMOA.

Kolkhoza*koljos/kolkhose*

KOLlektivnoie KHOZjaistvo (ekonomia kolektiboa)-ren laburkina, *sovieten nekazal *kooperatiba, 1929.eaz gero nekazal *produktzio-enpresa nagusia Sovietar Batasunean (ik. SESB). 1950.ean Kolkhoz-sistemaren eraberrikuntza bat egin zen, hain zuzen Kolkhoz txikiak bateratu eta haundiak antolatzeko, errazago mekanizatzearen. Kolkhozetan lurraren jabe *Estatua da; baina tresneria, etxalde, dirutza eta Kolkhozak berak produzitutako guztiaren jabe, kooperatiba; kooperatibaren lur eta ondasunekin ari da nekazaria lanean. Kolkhozak bere produktuak Estatuari saltzen dizkio (edo zuzenean kontsumatzaileari kolkhoz-merkatuan). Familia bakoitzak bere bizitokia, behi bat eta baratzetxo dituzte jabetza pribatu era, bere sostengua ateratzeko.

SESB; KOOPERATIBISMOA; KOOPERATIBA.

Kolonia

*Kolonialismo klasikoa eta moderno berezten baditugu, kolonia hitzak (*colere/colonia* latinezkoetatik) adiera ezberdinak izan ditzake: 1.- herbestean kokatzen den herkideen multzoa (Parisko edo Madrileko euskal koloniak); 2.- herbestean kokatu den herkide-multzoa, baina *lurralde berrian integratu (ik. INDEGRAZIOA) gabe, hau da, politiko-kultural eta komertzialki sorterrari (ik. ABERRIA) loturik iraunez (Mediterranioko feniziar koloniak); 3.- lurralde berrian herkide edo kolono-multzo hau nagusiturik, propioki kolonia zeritzon multzoa soilki ez, baina haien bidez inguru guztia ekonomikoki, (eta agian militar eta politikoki ere bai), haien sorterriaren menpean ezarriz gero, kolonia derituz lurralde osoari (Ameriketako espainol koloniak). Hiru adiera hauetan erabili da klasikoki kolo-

nia hitza eta hiruretan *metropolitik hel-dutako jendearen *lana (lat. *colere/cultum*) edo kultura kontsideratzen zen kontzeptuaren oinarri: inmigranteen (ik. MIGRAZIOA) komunitatea zen kolonia zer-tzen zuena. Desarroilatu ere modu hone-tan desarroilatu da kolonialismo klasi-koa: grekoek, a.b., Mediterraneo inguru osoan koloniak zeuzkaten. Maila hone-tan, kolonia/kolonialismo hitzek, balio positiboa daramate gehienbat (kolonialdu = zibilizatu adinatsu). 4.- Kolonialismo modernoaren garaian, hots, 1880 inguru-tik aurrera, *inperialismo modernoaz bat eginez, eta gaurdaino, kolonia/kolonialis-mo kontzeptuek jatorrizko esanahiaren zehazki alderantzizkoa hartzen dute, hain zuzen «kolonialdu» (landu, zibilizatu) ez den, baina konkistatu den eta explotatzen den lurraldea adierazteko erabiltzen baitira: a.b., afrikar koloniak, europarrek han ez baitute «kolonia» aipagarrikeri eraiki (adiera klasikoan), soilki nagusitasun poli-tikoa eta explotazio ekonomikoa prakti-katu baizik. Teoria leninistaren arauera (ik. MARXISMO-LENINISMOA) kolonia klasi-koa nagusiki ezaguteratzen zuena, *me-tropoliaren *administraziopean egotea bazen, kolonia moderno, (inperialismoa-ren arokoa), explotazio ekonomikoak ezaguteratzen du. Alabaina, bai usadio arruntean eta bai zientzia politikoetan, berjabetasun (ik. INDEPENDENTZIA) politi-ko gabeko *lurraldeari esan ohi zaio kolo-nia; eta independentzia politikoa irabaziz gero ez zaio kolonia esaten, nahiz menpe-tasun ekonomikoan iraun, lurraldeontzat *Hirugarren Mundu kontzeptua zabaldu baita.

Jose Azurmendi

KOLONIALISMOA; INPERIALISMOA; HIRUGARIEN MUN-DUA.

Kolonialismoa

*Inperialismoaren forma espezifikotzat harturik, europar inperialismo mo-derno adierazteko erabiltzen da gaur gehienbat (itsasoz bestaldekua eta herri «primitiboen» gainekoa). 1. - Kolonialis-moak, lehenik, inperialismo klasiko guz-tien ezaugarriak ditu (xede, *lurralde menperatuaren antolaera, zapalketa eta

Kominform

explotazio-teknika, etab.) eta inperialismo guztiek bezalakoxe arrazoi politikoidelogiko (ik. IDEOLOGIA), estrategiko (ik. ESTRATEGIA) eta ekonomikoei erantzuten die, historian zehar horien tankera aldatuz joan arren. Alde honetatik, azterlariek inperialismo/kolonialismo ororen funtsezko egitamu-berdintasuna nabaritu ohi dute. 2.- Diferentziak, bigarrenik, kolonialismo modernoaren interpretazioetan daude: orain arteko (klase)-historia guztiaren azken puntua ote den, biragune historiko erradikal bat, *klase eta zapalketa gabeko *gizartea bakarrik jarrai dakiokena (Lenin) ala horren antzik ez duena. Inperialismo edo *koloni aroa bukatzean, hau da, koloniak europar menpetasunetik askatzean, *kapitalismoak berehala porrot egingen zuela zioen Leninen iragarpenak kontzeptu-nahasketa berri bat ekarri du, terminologikoa baino gehiago teorikoa: honez gero, batzu oraindik **inperialismo/kolonialismo** hitzez mintzo diren artean, *Mendebaldean batik bat, gehinak, *neokapitalismoaz bezala, *neokolonialismoaz mintzo ohi dira, kolonia horiek berjabetasun politikoa iritsia baitute. 3.- Hirugarrenik, «barne-kolonialismo» kontzeptua ere aurkitzen da egungo literatura politikoa. *Estatu modernoan bilketan nukleo zentral izan ez ziren *nazionalitateak, hau da, *botere zentralak bereganatuz gero *desarroitotik baztertuak izan zirenak, adierazteko erabiltzen da hitz hori.

Joxe Azurmendi

Kominform

Kominform/Kominform

SESBeko Alderdi Komunistak bultzaturik, 1947.eko Urriaren 5ean Belgraden muntatu zen komunisten informazio-bulegoa. Bulgaria, Txekoslovakia, Frantzia, Hungaria, Italia, Polonia, Errumania, Jugoslavia eta SESBeko Alderdien esperientzia eta indarren koordinaketa izan ziren *erakunde honen helburua. Amerikar (ik. USA) *inperialismoa eta eskuineko sozialisten (ik. SOZIALISMOA) kontra joateko eratua izan zen. Jugoslavia Kominformetik baztertua izan zen; 1956.ean, ordea, Stalinen SESB eta Titoren Jugoslavia (ik. TITOISMOA) el-

karganetzen direlarik, Kominform desegin egiten da.

SESB: KOMUNISMOA; INTERNAZIONALAK; NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK.

Komintern

Komintern/Komintern

Errusiako Alderdi Komunistak 1919.eko Martxoaren 2tik 6ra Moskun sortutako *erakundea. III. Internazionala ere deitzen zaio. Bigarren *mundu-gerran *Alderdi Komunistek *Mendebaldeko Aliatuekin batera burrukatzea erabakitzen dutelarik, galdu egiten da 1943.eko Maiatzean.

INTERNAZIONALAK; SESB.

Komuna

Parisko Komuna oso gertakari garrantzitsua da. Parisko herriak 1871.ean hartzen du *boterea. Ekonomia, kultura, *administrazio eta beste alor batzutan aldaketa iraultzaileak sortzen ditu eta, aldi berean, Frantziako *burgeseriak egindako *erasoari aurpegia ematen dio. *Erreakzioaren garaiak 30.000 hildako egiten du herriaren baitan, beste 10.000 kondenaturik gertatzen direlarik. 73 egun irauten duen gertakari hau *mito- eta eredu-sortzaile haundi bat izan da. Iraultzaileek, nahiz anarkistek, nahiz marxistek, ikertu eta arakatu dituzte haren gorabeherak, burrukarako kemen eta irakaspenak ateratzeko nahiaz.

Frantziaren eta Alemaniaren arteko *gerraren garaian gertatu zen Parisko Komuna. Thiersek, Frantziako *buruzagiak, Alemaniak inposaturiko baldintzak onartu zituen eta bakea egiteko Paris abandonatzea erabaki zuen. Paris defendatu nahirik, herria asaldatu egin zen. Sozialki, burges-txiki, intelektual, artisau eta langileez osaturik dago herri hori; politikoki, proudhonzaleak (ugari), marxista franko eta Blanqui konplotatzailearen jarraitzaileak elkartzen dira. Emakumeen partaidetasuna (ik. FEMINISMOA) ere aipagarria da.

Bere akats eta aje guztiaz, Komunari *langileriak hartzen du, lehenbiziko aldiz, inizatiba politikoa. Artisauak, merkata-